


## Zerrendatik kanpora diru arrazoiengatik

Amassorrainen, Arrian, Zubietan eta Marrutxipin egingo diren babes ofizialeko 85 etxebizitza erosteko izena emandako 1.537 lagun zozketako zerrendetatik kanporatu dituzte, gutxiengo diru sarreak ez dituztelako. Guztira, 7.000 lagunek eman zuten izena eta beraz, haietatik %22 zerrendetatik kanpo geratu dira, arrazoi ekonomikoak medio. Dena dela, lagunok eskubidea izango dute egitekoak diren beste zozketetan babes ofizialeko etxebizitza bat errentan hartzeko. Beste 324 lagun ere geratu dira zozketatik kanpo, beste arrazoi batzuegatik: 25 beste etxebizitza baten jabe izateagatik eta 299 bestelako arrazoiengatik.

Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak jakinarazitakoaren arabera, Arria eta Marrutxipiko sustapenarako, 4.794 eskaera onartu dira. Haietatik 15 gutxituenak, 446 hiru kide edo gehiagoko familienak, 1.103 bi kidez osatutako familienak eta 3.299 bakarrik biziko diren pertsonenak. Hirigintza zinegotziaren hitzetan, "zozketa irizpideak direla eta, familiek bakarkako lagunek baino aukera askoz handiagoa dute etxebizitza eskuratzeko".

Amassorraingo sustapenean, berriz, 2.504 eskaera onartu dira, eta Zubietakoan, 2.295. Sustapenon zozketak Aste Santua aurretik egingo dira.



## Atxiloketak Garzonen aginduz

Baltasar Garzon Auzitegi Nazionaleko Epaileak aginduta, bederatzi pertsona (haietatik hiru adingabeak) atxilotu zituen Ertzaintzak joan den asteartean, hilak 18. Atxilotu guztiak donostiarrak dira eta kale istiluetan parte hartzea leporatu diete. Hain zuzen ere, Arkaitz Alkorta, Juan Mari Sagarzazu, Joseba Arrizubieta, Jon Urretabizkaia, Xabier Aiestaran, Iurgi Oteiza eta A.V. M.A eta A.F atxilotu dituzte. Bestalde, asteazkenean, Espainiako Poliziak 14 lagun atxilotu zituen Hego Euskal Herrian, epaile berak aginduta, tartean lau donostiar: Aiora Epelde, Arkaitz Rodriguez, Dorleta Ganzarain eta Maria Colera.

## Orban handia Donostiatik gertu

Marea beltzaren arriskua ez da amaitu, izan ere, Donostiatik 15 itsas milietara bi kilometro luzeko fuel olio orban dago, Eusko Jaurlaritzak jakinarazitakoaren arabera. Astelehenean, hilak 17, 165 untxi orban handi hori jasotzera irten ziren. Gainera, azken egunetan galipot ugari jaso dute hondartzetan. Astelehenean bertan, esaterako, 16 tona jaso ziren gure hondartzetan: 6,4 tona Ondarretan, 5,3 Kontxan eta 4 Zurriolan.



## Hitz eta pitz

### Literatura eta hizkuntza txikiak

Arkaitz Cano idazle donostiarrak gaztelaniatzko lehen liburua plazaratu berri du: "Enseres de ortopedia infantil". Joan den asteartean, hilak 18 elkarrizketa egin zioten Diario Vasco egunkarian eta idazleak dioenez, "hizkuntza txiki batean idazteak abantailak ditu, baina beharrezkoa da itzulpena". Canoren aburuz, "euskaraz idatzita batek bere irakurle guztiak ezagutzen dituela sentazioa du, amets gaizto bat bezalakoa da. Itzulpena, finean, aireztatzea bezalakoa da, batik bat, irakurle gutxi dituen hizkuntzan ari garen idazleentzat".

